

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2011ko azaroaren 30a. VIII. urtea. 2.316. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Aitor Zabaleta Musikaria

«Zuzenekoetan garrantzitsuena zaleekin harremana izatea da»

Esne Beltza taldeko baxua da Aitor Zabaleta. 18 urte daramatza taula gainera igota, azken lauak egungo taldean; 'Freedom hiru kolpetan' disko berria aurkeztuko dute Durangon ◯7



ITZEA URKIZU

→ **Txuleta eta txekor errea, protagonista.** Tolosako Udalak eta herriko lau txuleta erregelako kideek abenduaren 5etik 8ra bitarte ospatuko den Txuleta Festa aurkeztu dute, Zerkausian. Aurtengoan, burruntzian erretako txekorra izango da berritasuna, lehen egunean. Beste egunetan txuleta menua zerbitzatuko da. ◯2

Gaur egingo dute aparkalekuen inguruko lehen bilera

Ibarrako Udalak eta herritarrek batzordea osatu berri dute, aparkalekuei eta OTAri buruz elkarlanean irtenbidea aurkitzeko ◯6

Aritza elkarteak Nafarroaren eta Euskararen Eguna ospatuko du, larunbatean

Villabona herri euskalduna eta nafarra dela aldarrikatuko dute ◯5

Torquemadaren mintegiak, arrakastatsuak

Nazioarteko Gaurkotasunaz aritu da, Tolosan ◯3

Bengoetxeak eta Lopezek batera irabazi dute Aizkardiko Argazki Rallya

Bi argazkilariek puntu kopuru bera lortu dute ◯5



FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK

Kondeko aldega, 5
www.funerariavascongada.com



Gertu...

TOLOSAKO
HILETA ZERBITZUAK
BEILATOKI BULABEA

24 H..

943 670 040



Abenduaren 5etik 8ra izango den aurtengo Txuletaren Festaren aurkezpena egin zuten, atzo, Zerkausian. LURKIZU

Burruntzian erretako txekorra ere izango da aurtengo Txuletaren Festan

Txuletaren festaren harira, zesta punta jaialdia izango da; zenbait denda ere zabalik izango dira

Itzea Urkizu

Atzo eguerdian aurkeztu zuten, datorren abenduaren 5etik 8ra bitarte Tolosan ospatuko den Txuletaren Festa. Aurreko urteetan bezala, erretegietako menua eskainiko dute txuletarekin, baina bada berrikuntzarik: burruntzian erretako txekorrarekin afaria izango da abenduaren 5ean, Zerkausian.

Goiz erdian hasiko dira, datorren astelehenean, euskal labeldun txekorra burruntzian erretzen. Zerkausian erreko dute, gaueko afarirako prest eduki ahal izateko. Horrela, iluntzean afaltzera bertaratu nahi dutenek, 20 euroko prezioa izango dute honako menua: osterzuri edo eskarola

entsalada fruitu lehorrer eta mahaspasekin, txekor erre, gazta, irasagarra eta intxaurreak. Edaria eta kafea ere menuarekin batera izango dituzte bertaratuak.

Parrilan egindako txuleta dastatu nahi dutenek, berriz, abenduaren 6tik aurrera izango dute aukera, Tolosako lau txuleta erretegiren eskutik: Orue, Burruntzi, Nikolas eta Julian erretegietako arduradunak ariko dira Zerkausian, txuleta prestatzen. Bazkariak hildaren 6an eta 8an izango dira, eta abenduaren 7an, berriz, afaria izango da Zerkausian. Menuak 45 euroko prezioa izango du, eta aurreko urteetako jaki bertus izango dira dastagai: uanean bertan moztutako urdaiazpikoa, Joxe M. Barriolarena; Tuterako kukuluak; Pedro Luis kontserba etxeko Lodosako esparragoak; Alejandro Goya eta Carnicas Goyaren txuleta; Antton Arronizzen Lodosako piperrekin; Tolosako Martin-Txiki eta Berastegiko Larteko Idiazabal gazta; Casa Eceizako teilak eta zigarroak eta

Gorrotxategiko xaxuak. Era berean, Viña Laguardia upategiko aukeraturako mahastietako ardo ondua, Isastegi eta Eguzkitzako sagardoa, Insaluseko ura eta Cafes Zabalak eskainitako kafea ere izango dituzte.

Zerkausiko mahaikideei jakiaik zerbitzatzeko, berriz, Belauntzako Mundo Delicia enpresako langileak ariko dira, Tolosako Adiskideek Saskibaloiko Kirol Elkartereko ki-deek lagunduta.

Bazkaltzeko nahiz afaltzeko erreserbak Tolosaldea Tour-en egin daitezke oraindik, bai 943 69 74 13 zenbakira deituz, eta baita tour@tolosaldea.net helbide elektronikora idatziz ere.

Zerkausiko jantokiaz gain, ordea, aipatzekoa da, herriko beste zazpi jatetxe ere menu bera eskainiko dutela astelehenean hasita ostegunera bitarte, prezio berean; bazkari nahiz afari orduan dastatu ahal izango da menua, gainera. Honakoak dira erretegiko menua eskainiko duten jatetxeak: Astelena (943 65 09 96), Berazubi (616 82 37 07), Beti Alai (943

67 19 20), Bide Bide (943 57 75 53), Botarri (943 65 46 88), Olazal (943 68 12 28) eta Usabal (943 67 43 16).

Puntista profesionalak

Txuletaren festarekin batera, zesta punta ere izango da datorren astean Tolosan. Abenduaren 6an, Beotibar pilotalekuan, 16:30ean hasiko da ekitaldia, Beotibar zesta punta eskolako gazteekin ki-nielak eginez. 17:00etan profesionalen lehen partida hasiko da: Garcia-Minvielle bikotea Treku-Alliez I.a bikotearen aurka. Partida hau amaitzean, Jose Inazio Elola zenari omenaldia egingo diote, eta ondoren izango da profesionalen bigarren partida: Egigeren II.a eta Konpa Oiharana eta Hernandezen aurka ariko dira.

Dendak zabalik asteartean

Era berean, aipatzekoa da, Txuletaren Festa dela, eta herriko zenbait komertzio zabalik izango direla datorren abenduaren 6an, 11:30etik 13:30era, eta 18:00etatik 20:00etara.

o tolosa@hitza.info

→ Laburrak

Plangintza finantzieroa aurkeztuko dute

EKONOMIA › Bihar, abenduak 1, legealdi honetarako plangintza finantzieroa aurkeztuko du udal gobernua. Pleno aretoan izango da, 20:00etatik aurrera.

Larramendiko alternatiba aurkeztuko dute

HIRIGINTZA › Larramendiko Voith-Gorostidi eremuko urbanizazioaren azuzian, udalak bere alternatiba aurkeztuko du. Datorren abenduaren 13an izango da, 20:00etan, Topicen. Aurkezpen lanetan eta zalantzak argitzen ariko dira udal gobernuko ordezkariak, eta baita alternatiba idazten aritu diren arkitekto eta teknikariak ere.

Izena eman daiteke jada Shanti Trofeoan

KIROLA › Aurten 30. aldiz jokatuko dute Eguberrietako areto futboleko Shanti Trofeoa. Alde batetik, benjaminak ariko dira, 2002 eta 2003 urteetan jaiotako neska-mutilak. 2000 eta 2001ean jaiotako alebinez ere parte hartu ahal izango dute. Izena Shanti Kirolak dendan bertan eman daiteke, abenduaren 12ra bitarte.

Mintzodromoa gaur Laskorain ikastolan

EUSKARA › Gaur, 11:5etik aurrera, Mintzodromoa egingo dute Laskorain ikastolako Bigarren Hezkuntzako ikasleek. Galtzaundik antolatutako Mintzodromoarekin bat eginez, Laskorainen ikasleek ateratzen dituzten ondorioak ostiral arratsaldeko mahai inguruan azalduko dituzte. Laskoraingo ikasleek landuko dituzten gaiak honakoak izango dira: erabilera, sustapena eta kultura.

'Zamaontzia' aztertuko dute irakurle taldean

LITERATURA › Hilero bezala, Galtzaundik irakurle taldea antolatu du abendurako ere. Bihar izango da, abenduaren 1ean, 19:30ean. Antonio Maria Labaien kultur etxean elkartuko dira, Iñigo Aranbarriren Zamaontzia liburuz aritzeko.

Truke eguna antolatzeko bilera egingo dute bihar

GIZARTEA › Abenduaren 18an izango da truke eguna aurten. Antoliakuntza lanetan parte hartu nahi dutenek, bihar egingo dute bilera, 18:00etan, kultur etxean.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxe adosatua.** Tolosan etxe adosatua salgai: eguzkitsua, lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukalde, bi autorentzako garaia, txokoa, lorategia eta trastelekua ditu. Interesatuek, 678 26 76 57 telefono zenbakira deitu behar dute.

LANA

■ **Emakume euskalduna.** Espiritualdu eta konfidantzazko emakume euskaldunak, etxeke lanak egin edota edadeko pertsonak nahiz haurrak zaintzeko bere burua eskaintzen du. Autoa ere badauka. Interesatuek, deitu 605 72 02 51 telefono zenbakira.



Gero eta arrakasta gehiago izan dute Jesus Torquemadak (erdian) emandako mintegiek. HITZA

Arrakasta handia izan du Nazioarteko Gaurkotasunari buruzko mintegiak

Afrika eta krisi ekonomikoa hizpide izan dituzte Jesus Troquemadaren hirugarren mintegian

Itzea Urkizu

Tolosaldean Ikastn-ek antolatzen duen Nazioarteko Gaurkotasunari buruzko III. Mintegiak arrakasta handia izan duela azaldu dute antolatzaileek. Jesus Torquemada kazetaria izan da hizlaria hiru mintegietan, eta parte hartzea hazi egin da lehenengotik hona.

Parte hartu duen jendeak oso gustura agertu du bere burua; hori da Tolosaldean Ikastn-ek, mintegia amaitutakoan banaturiko inkestek diotena. Bide honetan, edukiarekin hasi, eta materiala, instalazioak, irakaslea eta antzeko aspektuak ebaluatu behar izan dituzte ikasleek, eta jendea gustura geratu da mintegiarik. Gainera, Gemma Zelaia ar-

duradunak azaldu duenez, jarduera honekin aurrera jarraitzeko hainbat eskaera jaso dituzte bertaratuen aldetik: «Jendeak ikasten jarraitzeko gogoia du, eta baita nazioarteko gaietan gehiago sakontzeko ere».

Mintegia antolatzerakoan, Tolosaldean Ikastn-en helburuek lau ildo nagusiri jarraitzen diete: norberak bere ezagutzak hobetzea, parte hartze aktiboa eta izpiritu kritikoa sustatzea, bizitza osorako ikaskuntzari garrantzia ematea eta atzerrira begira jartzea, besteak beste.

Mugetatik haratago

Gure mugetatik kanpora begiratzeko helburu horrekin, Nazioarteko Gaurkotasunari buruzko lehen mintegia 2010eko apirila eta ekaina bitartean egin zuten. Erdialdeko Ekialdea, Europa eta Amerika izan ziren Jesus Torquemadaren hizketa gaiak, eta guztira 10 saio izan ziren.

Aurtengo otsailan, bigarren mintegia antolatu zuen Tolosaldean Ikastn-ek. Sei saio burutu zitu-

tuzten, eta besteak beste, Asiari buruz eta Japoniako itsasikarari buruz aritu ziren.

Azkenik, hilabete honetan amaitu den hirugarren mintegian, Afrikaz eta mundu osoa hartu duen krisi ekonomikoaz aritu dira.

Aurreikusitako ikastaroak

Tolosaldean Ikastn-ek, ikastaro gehiago antolatzea aurreikusi du.

Horietako bat adimen emozionalari buruzkoa izango da; 15 orduko ikastaroa izango da.

Tolosaldean Ikastn-en beste asmoetako bat, IKTen inguruko ikastaroak antolatzea da. Herri-tarrak hezkuntzaren esparrura erakartzea da lortu nahi dutena, eta bizitza osoko formakuntza sustatzea.

Bide horretan, askotariko esparru eta gaitara iristen saiatuko dira ikastaro eta mintegien bidez, eta eguneroko bizitzarako baliagarriak izan daitezkeen oinarriko gaitasunak, gure eskualdeko errealitatera egokituko dituzte.

Bidebieta auzoan eraberritze lanak egingo dituzte

Pasa den azaroaren 18ko Gobernu Batzarrean onartu zuten Olloquiegui S.A. enpresaren ziurtagiria

I. Urkizu

Azaroaren 18an Tolosako Udalean egindako Gobernu Batzarrean, Bidebieta auzoko eraberritze lanak burutuko dituen Olloquiegui S.A. enpresak aurkezturiko ziurtagiria onartu zuten.

Pasa den uztailaren 22an, Gobernu Batzarra osatzen duten Ibai Iriarte, Lore Agirre, Asier de los Rios, Edurne Mendia eta Iñaki Irazabalbeitia udal ordezkariak, Olloquiegui S.A. enpresari esleitu zioten Bidebieta auzoko espazio publikoa hobetzeko, eta auzoan aparkaleku eta berdeguneak jartzeko beharrezkoa den obra. Guztira, 227.049,65 euroko gastua aurreikusi zuten udalak, Bidebieta auzoko obrarekin.

Horrela beraz, Olloquiegui S.A.-k, 46.642,34 euroko lehen ziurtagiria aurkeztu zuen urriaren 21ean. Udal teknikariak ziurtagiriari oniritzia eman zion, eta hau kontuan izanda, Gobernu Batzarrek berau onartzea erabaki du.

Proiektio ekipo digitala

Bestelako kontuak ere hizpide izan ziren azaroaren 18ko Gobernu Batzarrean. Kultura sailak, esaterako, Leidor aretorako proiektio ekipo digitala jartzeko beharra azaldu du.

Gobernu Batzarrek, bere aldetik, kontuan izan ditu hainbat gauza: batetik, aurrekontuaren arabera, ekipo digitala kontratazeko beharrezkoa den prozedura publikitatearekin negoziatu behar dela. Bestalde, administrazio teknikariak prozedura honi buruz egindako txostena espedientean gordea dela ere nabarmendu

dute. Hau guztia kontuan izanik, ekipoaren instalazioa eta hornitzea esleitzeko araututa dauden baldintzak eta kontratazio gastua onartu egin ditu Gobernu Batzarrek. Horrela beraz, Tolosako Udalak dagozkion gonbidapenak egingo ditu, eta iragarkia kontratistaren profileen jarriko du hamabost egunez, proposamena aurkez daitezten.

Europako Sari Nagusia

Pasa den azaroaren 5ean ospatu zen Tolosan Abesbatzen Europako Sari Nagusia; sei urtez behin izaten da hemen, europar zirkuituko gainontzeko hirietan bezala.

2010eko aurrekontuetan, ordea, ez zuten Europako Sari Nagusia aurreikusi. Horrela beraz, udalkenean udalean egin ziren kreditu aldaketetan, 6.000 euro esleitu zitzaizkion Abesbatzen Europako Sari Nagusiari.

Antolatzailea den Tolosako Ekinbide Etxeak, ordea, 18.000 euroko diru-laguntza eskatu zion udalari jarduera honetarako. Udalak, TEEak antolatzen dituen gainerako jarduerak izan ditu erreferentzia diru-laguntzaren zenbatekoa erabakitzerakoan; udalak gastu orokorraren %5,5a eman ohi dio TEEri, eta beraz, kultura batzordearekin bat etorritik, eta aho batez, Gobernu Batzarrek, oraingoz 6.000 euroko diru-laguntza ematea erabaki du.

Santa Mariako organoa

Duela bost urte, Santa Maria parrokiako organoa konpontzea proposatu zuten. Konponketarako finantzaritza bideak parrokiako zuzendaritza taldeak berak kudeatu zituen, eta udalak %25a ordaintzea adostu zuten. Konponketan sortu diren behar berriak aurreikusita ez zeuden arren, kreditu aldaketan diru kopuru bat bideratu zen organora, eta 7.228,97 euroko azken diru laguntza emango dio udalak, Santa Mariako zuzendaritza taldeari.

CITROËN C4 BERRIA
POSITIVE POWER

Jarrai gaitzazu:

PLAN RENOVE + CITROËN
HILABETE HONETAN
JASO ITZAZU

3.000 €
ZURE IBILGAILU ZAHARRARENGATIK.*

CITROËN

GRUPU TEKNOLOGIKO

IROVI, S.A. KONZESIONARIO OFIZIALA CITROËN. INDUSTRIGUNEA Z/G. • TEL.: 943 65 18 42. ANOETA / TOLOSA

GIPUZKOA BERRIKETAN

GUK ERE
EUSKARAZ



z i s x b
e n o

b t
r e
a u p

2011ko abenduaren 3a
Euskararen Nazioarteko Eguna



Gipuzkoako Foru Aldundia



TOLOSAKO MINTZODROMOA

Abenduaren 2an, 16:30ean, Fronton kafetegian

Migel Zalakainen heriotzaren XXI. urteurrena gogoan izango dute

Amnistiaren Aldeko Mugimendutik herritarrei ekitaldietan parte hartzeko eskatu die

Asier Imaz Amasa-Villabona

Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak azaldu duenez, gaurko eguna berezia izango da billabonatar guztientzat: «Gaur beteko dira 21 urte Migel Zalakain euskal preso politikoa erail zutela, Martuteneko espetxean».

Migel Zalakain gaixotasun baten ondorioz hil zen espetxean, «gaizki artatutako bihotzeko baten ondorioz». AAMtik azaldu duenez, «Zalakain hiltzeaz akusatutako medikuak epaituak eta absolbituak izan ziren, eta gero kondekoratuak». Gaur egun, gainera, zeregin horietan jarraitzen omen dute.

Bi hamarkada igaro dira orduetik, eta Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren esanetan, espetxeetako egoera ez da al-



Bi hamarkada igaro dira Migel Zalakain hil zenetik. HITZA

datu: «Kasik 20 urte beranduago, Mikel Zalakain, Migelen semea, ere kantzer baten ondorioz zendu zen Korsikan, sasian. Horrez gain, gaur egun, Euskal Preso Politikoen Kolektiboan badira oso gaixorik dauden euskal presoak. Egoeraren larria, beraz, begi bistakoa da. Gatazkaren konponbidearen gakoetako bat da gaixorik dauden euskal presoak berehala aske uztea».

Espetxeetan bizi duten egoera-

ri buruz, AAMtik txostena zabaldu dute. Dokumentu hori tolosaldea.hitza.info web gunean aurkitzen da.

Egoerari bueltza emateko, herritarren bultzada beharrezkoa dela gaineratu dute, eta eurei zuzendu zaizkie Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideak: «Herritar guztiei dei giten diegu, Migelen omenez antolatuko diren ekitaldietan parte hartzera agertzeko eskatuz».

Bengoetxeak eta Lopezek irabazi dute Argazki Rallya

Erredakzioa Amasa-Villabona

Aizkardi mendi taldeak iragan astean Mendi Astea antolatu zuen. Ekitaldien artean, IV. Argazki Rallya aurkitzen zen, eta iragan ostegunean egin zen sari banaketa ekitaldia.


Aurtengo lehiaketaren gaia *Egurra* zen, ondorioz, parte hartzaile guztiek egurra zuten argazkien ardatz. Guztira 36 lehiakide aurkeztu ziren, 81 argazkirekin.

Lehen saria bi argazkik irabazi zuten, puntu kopuru berbera lortu baitzituzten. Ondorioz, Gorka Lopezen *Egurren etsaia al da zerra?* eta Egoitz Bengoetxearen *Koloretako esola* argazkiek irabazi zuten Aizkardiren IV. Argazki Rallya.

Lehen bi postuak bat egin ondoren, hirugarren Daniel Martin gelditu zen, *Ekaitzaren ostean* lanarekin. Publikoak argazki guztiak ikusteko aukera izan zuen, eta ondoren, euren gustukoa aukeratu zuten. Kasu honetan, Aitziber Arruti saritu zuten, *Besarkada* argazkiarengatik.




'Koloretako esola'. EGOITZ BENGOTXEA



'Egurren etsaia...'. GORKA LOPEZ

Publikoaren saria. AITZIBER ARRUTI



Daniel Martinen 'Ekaitzaren ostean' argazkia hirugarren gelditu da. DANIEL MARTIN

Nafarroaren eta Euskararen Eguna ospatuko dute larunbatean

Aritza kultur elkarteko kideek herritarrei dei egin diete hilaren 3an herriko plazara ager daitezen, 12:00etan

A. Imaz Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Aritza kultur elkarteak abenduaren 3an, larunbatean, Euskararen eta Nafarroaren Eguna ospatuko du. Horretarako, ekitaldi xumez

osatutako egitaraua antolatu dute.

Villabona herri euskalduna eta nafarra dela aldarrikatzeko, Aritza kultur elkarteak adierazpen bat prestatu du. Bertan, besteak beste, ondorengo puntuak agertzen dira: «Gure nortasuna, hizkuntza eta kultura euskalduna dela eta mundu zabalean izandako presentzia nafar estatuaren bitartez bakarrik gauzatu dela; eta gerra eta biolentzia bidez bakarrik geldiarazi dutela gure nortasunaren garapen askea».

↓ Egitaraua

AZAROAK 3, LARUNBATA

- **Lehen orduan.** Udaletxean Nafarroako bandera zintzilikatuko dute.
- **12:00etan.** Nafarroako ereserkia joko dute musika eskolako txistulariek.
- **Ondoren.** Alkateak adierazpen bat irakurriko du. Herritarrei 12:00etan herriko plazara agertzea eskatu diete.

Enrausketa zerbaitu berrin marxiari
Enrausketa libe proposatzen

PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008

TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA
 San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

→ Laburrak

Nafarroako konkistaren inguruan hitzaldia, gaur

LIZARTZA ▶ Lizartzako kultur astearen barruan, gaur hitzaldia izango da 20:00etan, kultur gunean. *Nafarroako konkista 500 urte, arabar, bizkaitar eta gipuzkoarren parte hartzea* hitzaldia izango da, Nafarroa bizirik taldearen eskutik. Bihar, berriz, umeentzat tailerrak egingo dituzte, 17:00etan hasita, kultur gunean, eta 20:00etan, *Mongoliako mendietan barrena* proiektioa izango da Josu Perezen eskutik leku berean, kultur gunean.

Aurrera elkartean batzar orokorra, etzi elkartean

LEITZA ▶ Aurrera elkarteak batzar orokorra egingo du etzi, ostiralean. 20:00etan hasiko da, eta urteko kontuez ariko dira.

Ohiko bilkura egingo dute gaur, 19:30ean hasita

IBARRA ▶ Udalbatza osoaren ohiko bilkura izango da gaur 19:30ean hasita. Ondorengo gaiak eztabaidatuko dituzte: Zabor bilketaren inguruan ordonantza fiskalaren aldaketari ezartzen zaion errekurtsioa; Ibarra eta Leaburu-Txarama herrien arteko muga zehazketa espedienteari hasiera ematea; Bildu alderdiaren mozioak Euskararen Egunaren eta Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunaren harira.

Nafarroako Eguna ospatuko dute etzi

LEITZA ▶ Leitzako Udalak eta Alke kultur elkarteak antolatuta, erakusketa eta hitzaldia izango dira etzi. Hain zuzen ere, Nafarroako Egunarekin bat egingez, Beñi Agirrek *1512ko konkista eta gure inguruan izandako eraginak* hitzaldia emango du, udal aretoan, 19:00etan.

Aparkalekuen gaia aztertzeke udalak eta herritarrek batzordea osatu dute

Iragan asteko bileran hartu zuten erabakia; gaur egingo dute lehen bilera, kultur etxean, 19:30ean hasita

Iñigo Terradillos Ibarra

Herrian dagoen ibilgailuen aparkalekuen arazoari irtenbidea emate aldera, udaleko ordezkariak bilera irekita deitu zituzten herritarrek iragan astean. Bertan, aparkalekuen eta OTAren gaia aztertzeke, herritarren eta udalaren artean batzorde bat osatzea adostu zuten. Batzordearen lehendabiziko bilera gaur izango da, kultur etxean.

Herritar ugari erantzun zioten udalaren deialdiari. Udalak adierazi duenez, bileraren helburua aparkalekuen eta OTAren gaia herritarrei azaltzea izan zen. Batetik, datu ekonomikoak eman zituzten, hau da, OTA sistemak



Iragan asteazkenean egin zuten aparkalekuen inguruko bilera. HITZA

50.000 euro inguruko defizita duela esan zuten. Horrez gain, aparkaleku faltaren arazoa ikusi zuten, OTA zein auzotara zabaldu daitekeen eta zer aukera dauden horretarako aztertu zuten eta txartela kobratzeko aukeraz ere hitz egin zuten, besteak beste.

Era guztietako iritziak eta proposamenak plazaratu zituzten kultur etxean bildutakoek. OTA arazoa konpontzen ote duen edo arazoa desbideratu egingen ote duen zalantza agertu zuten, autoek espaloietan aparkaturik jarraitzen dutela adierazi zuten, herritar guztiek OTAgunean aparkatzeko aukeraz ere mintzatu ziren...

Azkenean, udal ordezkariak eta herritarren artean batzorde bat osatzea erabaki zuten. Batzorde honek Ibarra aparkalekuen gaia aztertu eta irtenbidea emateko ardura izango du. Aste honetan bertan hasiko dira zereginean horretan, gaur izango baita lehen bilera, kultur etxean, 19:30ean.

O+Hatz taldeak kontzertu didaktikoa eskainiko du etzi

Ion Garmendia ibartarra kide den taldea kultur etxean izango da etzi, 20:00etatik aurrera

I. Terradillos Ibarra

Ibarra Udalak antolatuta, Ion Garmendia ibartarra taldekide den O+Hatz taldeak euskal musika tresnen inguruko kontzertu didaktikoa eskainiko du etzi, ostiralean, Benito Izagirre kultur etxean, 20:00etan hasita.

Emanaldiaren lehen zatian,



Ion Garmendia eta Iñaki Plaza Tolosako Musika Eskolan. E. EZEIZA

euskal musika-tresnak aurkeztuko dituzte (txalaparta, txistua eta danbolina, txirula, trikitixa, panderoa, alboka), bakoitzari buruzko azalpen teorikoa emanez: alderdi fisikoak, teknikoak, historikoak, eraikuntzarekin loturikoak.

Jarraian, musika-tresna bakoitzarekin abesti bat joko dute. Errepertorio tradizionalako abestiak joko dituzte, dantza tradizionalaren errepertorio hiru ermitimo nagusietan, fandangoa, arrinarin eta birbilketa, alegia.

Bigarren zatian, taldeko kideek kontzertu txiki bat eskainiko dute, beren errepertorio 5 edo 6 abestiz osatua. Abesti hauetan, euskal musika-tresnez gain beste batzuk erabiliko dituzte, adibidez taula indiarra edota Jamaikako steel drum-a.

● Hilberriak

**MARIA TELLERIA IMAZ**

(Lierniko Serora)
Atzo hil zen, 95 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-G.B.-

Anaia-arrebak: Juan (†), Patxi (†) eta Ramona Lazeta (†), Nikolas (†) eta Felixa Goia (†) eta Alejo; ilobak: Joxemari eta Kontxita, Ramon eta Ixiar (†), Luixmari eta Alxia, Iñaki eta Rosarito, Maixabel eta Jabier, Lurdes eta Xanti, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitetzela GAUR, ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, MIKEL GOIANGERUAREN parrokiaren elizan, gorpua aurrean dela egingo den hileta elizkizunera. Eskerrik asko guztioi aldeaz aurretik.

MUTILOA, 2011ko azaroaren 30a

Helbidea: Serora Etxea-Lierni.

San Juan Egoitza-Segura

Oharra: Gorpua Beasaingo GOIERRI BEILATOKIAN egongo da.

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



SAIOA CABAÑAS

Aitor Zabaleta ◊ Musikaria

18 urte daramatza leitzar musikariak taula gainera igo eta zuzenekoak eskaintzen; Etxakit taldean hasi zen, Izotz taldetik igaro zen gero, eta egun boladan dagoen Esne Beltzan ari da; Durangoko Azokan 'Freedom hiru kolpetan' lan berria aurkeztuko dute.

«Musikari txikitari nion zaletasun berarekin jarraitzen dut egun»

Iñigo Terradillos Leitza

Etxakit taldearekin igo zen taula gainera estreinakoz duela 18 urte. Izotz taldearekin ere aritu zen, eta egun Esne Beltza taldeko baxua da Aitor Zabaleta leitzarra. Gazte-txoa zenetik zaletasun handia izan dio musikari, eta egun ere berdin mantentzen dela dio. «Musika ilusioz eta gogoz egitea funtsezkoa da», dio.

Esne Beltza taldearen ibilbideaz zer balantze egiten duzu?

Oso balantze baikorra. Lehenengo urtea aurkezpen modukoa izan zen, eta beste hiru urteak, eta batez ere, azken biak, oso indartsuak izan dira, bai kontzertuei bai eta jendeari dagokionez ere. Emanaldi ugari izan ditugu, eta guztietan jende asko izan da, giro oso polita sortu delarik.

Zein unetan hasi zineten arrakasta nabaritzen?

Ez nuke une bat aipatuko. Ibilbide oso eskailera igoz joan gara, lan handia eginez. Kontuan hartu behar da, baita ere, Esne Beltza taldeko musikariok urte mordoan daramagula musikaren munduan. 15 urte baino gehiago kide

bakoitzak, eta hainbat talde desberdinetan: Etxakit, Joxe Ripiau, Fermin Muguruza... Honek guztiak taldearen beraren ibilbidea erraztu du, jendeak ezagutzen dituen musikariak baitira.

Izan ere, oso zaila da musikaren munduan talde batek bere lekua egitea.

Bai, oso zaila. Zaila da, baita ere, emanaldiak lortzea, eta egungo egoerarekin are eta zailagoa. Alde horretatik, zortedun garelako esan dezaket, eta pozik gaude. Kontzertuen kopuruarekin oso gustura gaude, baina, pozik gaude, batez ere, jendearen erantzunarekin. Ez dugu inolako kexarik, alderantziz, oso pribilegiatuak sentitzen gara.

Gainera, lan berria izango duzue laster kalean.

Bai, *Freedom hiru kolpetan* CD-DVDa. Batetik, film edo dokumental bat osatu dugu zuzeneko irudiekin, hiru kontzertuekin, hain zuzen: 2009an Japonen eman genuen kontzertua, 2010ean Durangon eman genuena, eta aurrean Donostian eman duguna. Bestetik, argazkiak dituen liburuxka izango du, eta az-

kenik, CDa, abesti berriekin eta remixekin. Durangoko Azokarako egongo da prest. Bertan Esne Beltzak mahaia izango du, eta egunero egongo da taldekideren bat. Durangon bertan eskainiko dugu aurretiko azken emanaldia, abenduaren 6an, Plateruenan. **Bigarren diskoak, 'Noa' izenekoak, oso harrera ona izandu.**

Lehendabiziko bi urteetatik hona aldaketa handia nabaritu dugu. Jendea zuzenekoetara etortzeaz gain, gure abestiak ezagutzen eta kantatzen hasi zen. Zaleak eta taldearen artean harremana sortzen hasi zen. Taula gainean dagoen musikari batentzat komunikazio edo kontaktu hori da garrantzitsua.

Arrakasta izatea ez da erraza, baina gailurrean mantentzea are eta zailagoa izango da, ezta?

Mantentzea oso zaila izaten da. Ez soilik norberak egin dezakeen lanarengatik, baizik eta, merkatuan dagoen aukerarengatik. Izan ere, jendeak aukera handia du, eta probatu, ikusi eta entzuten aritzen da, beraz, horren araberak izaten da gehiago. Halaber, lehen aipatu bezala, oso zaila da

gaur egun kontzertuak ematea, eta ondorioz zure lekua egitea. Guk oso argi dugu aukera dugun bitartean lanean jarraituko dugula musika eskainiz.

Zer da funtsezkoa musikarekin lan egiteko?

Egiten duzuna gustura egitea. Hori beharrezkoa da. Kontuan hartu gure taldean inor ez dela

«Zaleekin kontaktua izatea da zuzenekoetan garrantzitsua, musikariarentzat»

«Topiko bat dirudi, baina, musika egiteko gogoa eta ilusioa beharrezkoa da»

musikatik soilik bizi. Norberak bere lana du musikatik at. Horrengatik argi dago egiten duguna gustatzen zaigula, eta gozatzeko eta ongi pasatzeko egiten dugula. Topiko bat dela dirudi, baina hala da. Gustura joango ez banintz, ez nuke egingo, nahiz eta jende ugari joan kontzertuetara. Eta hori,

ez soilik zuzenekoetan. Entseguetatik hasita nabaritu behar da. Prozesu guztian egon behar da gustura eta gogoz.

Beraz, musikarekin soilik bizitzea oso zaila da.

Bai. Euskal Herrian behintzat, bai. Autobus gidari bezala aritzen naiz lanean. Beti egin izan dut lan musikatik at, eta hori ez dut uste aldatuko denik, ez baita batere erraza. Taldeko kide guztiekin gertatzen da gauza bera, eta honek asko zailtzen du taldeko lana, asko garelako, eta guztiak elkar-tzea zaila izaten delako. Baina, ilusioz lan egiten denean guztia da posible.

Nola deskribatuko zenuke egiten duzun musika?

Ez nuke izen edo estilo bat jarriko. Estilo asko ukitzen ditugu. Triki-tiak berezko kutsua ematen dio, eta kutsu horrekin ukitzen ditugu reggaea edo hip hop-a, esaterako. 9 musikari gara taldean, eta bakoitzak bere musika gustuak ditu. Norberak bere alea jarriz sortzen den emaitza da Esne Beltza. Ikusi, probatu eta esperimintatzea gustatzen zaigu.

Maiz izaten duzu zure etxean bertan kontzertuak egiteko aukera. Zer sentitzen duzu emanaldi horietan?

Hainbat kontzertu egin ditugu bertan. Berezia da, eta oso gustura aritzen naiz. Gainera, jendearen aldetik oso erantzun polita izaten da. Zuzeneko horiek ardu-ra osagarria izaten dute, eta horrengatik, agian etxean jotzea ez da gehien gustatzen zaidana.

Atzerrian ere hainbat kontzertu eman dituzue. Zer moduzko esperientzia izan da?

Oso esperientzia ona. Bartzelonan, Londresen, Berlinen, Japonian... izan gara. Harrera ere oso ona izan dugu. Atzerrira joanez gero, badakizu zure etxean ez bezala, ez zaituztela ezagutuko. Baina, kontzertu hauetan, nire harri-durarako, jendea hurbildu egin zaigu, eta oso giro polita sortu da. 2012 urterako ere kanporako ikuspegi horrekin jarraitu nahi dugu, beti ere, Euskal Herria utzi gabe.

Esne Beltza taldearen aurretik, makinan bat zuzeneko eginak dituzue.

Zuzeneko lehendabiziko kontaktua Etxakit taldearekin izan nuen. Xabier Solano eta Jon Mari Beasainekin batera. Hirurak orain Esne Beltzan gaude. Etxakit hasi zenean hasi nintzen zuzenekoekin, eta han 8 urte egin eta gero, Izotz taldean aritu nintzen bost urtez. Ondoren Esne Beltza iritsi zen. Orotara, zuzeneko emanaldiak egiten 18 urte betetzera noa.

Eta, nolatan sartu zinen musikaren munduan?

Musika txikia nintzenetik gustatu izan zait, bai entzuteko bai eta egiteko ere. Nire pentsamenduan ez zegoen maila honetara iristea, baina gauzak horrela joan dira. Txikitari nuen afizioarekin jarraitzen dut gaur egun ere.

◉ leitzaldea@hitza.info



13°
6°

GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	12°
HOTZENA	6°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leizaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketak, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

HITZALDIAK

- **Alegia.** Udazkenean kultura egitasmoan, Julian Bereziartua-ren *Gaitz arruntak* hitzaldia, 19:30ean, kultur etxean.
- **Lizartza.** Kultur astearien barruan, *Nafarroako konkista, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren parte hartzea* hitzaldia Nafarroa Bizirik taldearen eskutik, kulturgunean, 20:00etan.

DEIALDIAK

- **Tolosa.** Galtzaundik mintzodroma antolatatu du abenduaren 2rako. Dinamizatzaile nahiz

parte hartzaile gjsara egon ahal izateko deitu 943 65 50 04 zenbakira edo idatzi koordinatzailea@galtzaundi.com.

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Ongi etorri!

Ortiz eta Aratz! Zorionak Eider, Ekaitz, Aitziber eta Ibon! Muxu bat Maite eta Jokinentzat! EUSKAL PRESO ETA IHESLARIAK ETXERA!



Urte askoan!

Aratz Alkain (Amezketak).
Zorionak etxekoan partetik, bereziki Garazik eta Josebak.

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

agurrak

Babarrun jate «borobila»

Alberto Zubelzuk irabazi zuen, hamabi parte hartzaileen artean, Babarrunaren II. Lehiaketa Ibartarra



Alberto eta Iker Zubelzu txapeldunak, Hauspoako Jokin Sarasola eta Jaione Bengoetxearekin batera. HITZA

Erredakzioa Ibarra

Babarrun jate «borobila» egin berri dute Ibarra, Hauspoa Kultur Elkarteak antolatuta. Babarrunaren II. Lehiaketa Ibartarraren hasi ziren. Bertan 12 bikotek hartu zuten parte, Ibarra hoberenak izateko asmotan. Alberto Zubelzu izan zen txapelduna, bere seme Ikerrek lagunduta. Txapelak eta 100 euroko saria etxeratu zituzten.

Bestalde, aurten Tolosako Babarrunak Kooperatibak Ibarrako Etxezarreta baserriko babarrunak doan eman zizkieten. Txumitza tabernak emandako Ibarra *langostinoak* ere ez ziren falta. Urtero legez, Alurreko LH1 eta LH6 bitarteko dantzari gazteek emaldia eskaini zuten plazan. Bien bitartean, Uzturpe Ikastolako DBH 1. mailako ikasleek postua jarri zuten barazkiz, bitxiz eta gozo gauzaz osaturik. Asteburu batez eskiatzera guztiak joan ahal izateko egin zuten.

Bazkarian, Uzturpe Ikastolako DBH 4. mailako ikasleak izan ziren zerbitzari lanetan, ikas bidaiarako dirua ateratzeko. Gazte-txoei lagunduz ikastolako 4 guraso izan ziren eta «lan aparta» egin zutela azpimarratu dute antolatzaileek. Arratsaldean Marceren kamiseta tailerra izan zuten eta gazte zein heldu bertan ibili ziren. Hauspoak egun horretan lagundu zuten guztiei eskertu die bere lana.



160 lagun izan ziren babarrun jatean. HITZA


Bertako informazioari, bertako produktuak



Egin HITZAren harpidedun

abenduaren 31 baino lehen,
eta jaso

MAHALA ekozlearen
produktu sorta hau
OPARI



Harremanetarako:
902-82 02 01
harpidetza@hitza.info

hitza info

INKERNU
jantzigintza

- Diseinuak
- Eraldaketak
- Konponketak
- Artzain-andre jantziak
- Inauterietako mozorroak

Gernikako Arbola 1 behea • **TOLOSA** • 943 24 43 64 • elvinkernu@gmail.com